




Ailantoaren mapaketa (eta beste EEI) Iruñerrian



Asociación *Elkartea*

Reforestación
Nafarroa

Kolaboratzaile

Gobierno de Navarra  Nafarroako Gobernua



¿Zer da *espezie exotiko inbaditzailea*?

Gizakiak intentziaz edo nahi gabe bere jatorrizko ekosistemetan sartu dituen animalia eta landareak dira.

Sartu ondoren, ingurunera egokitu eta kolonizatzen hasi dira.
Ekosistemak kaltetzen dituzte eta bertan bizi diren espezie autoktonoei eragiten diete. Horrek desplazamendu bat eragin dezake, genetikarekiko afekzioa, baita espezie autoktonoen populazioak murriztea ere, desagertzeko arriskuan egon arte. Izan ere, espezie exotiko inbaditzaileak dira munduko biodibertsitatea galtzeko bigarren arrazoa.

Hainbat adibide...

Tomatea

*Espezie exotikoa, baina **EZ inbaditzailea***

Gaur egun ohikoa den arren, landare hori exotikoa da. Andeetakoa da eta gizakiak sartu zuen. Baina ez da inbaditzailea, landatzen den tokian erraz kontrolatzen baita. Gainera, ez da inguruko beste lurralde batzuetara zabaltzen, ez eta beste espezie batzuk hiltzen ere.

Ailantoak

Espezie exotiko inbaditzailea

Zuhaitz hau, jatorriz Txinakoa, mundu osoko parke eta lorategietan landatu da, **baldintza txarreko erresistentzia duelako eta azkar hazten delako..**

Horiek dira gure inguruan inbaditzaile eta mehatxu handi bihurtu duten arrazoietako batzuk, baina askoz gehiago daude...

- > Zuhaitz batek **bere buruaren klon asko** sor ditzake bere sustraien bidez, zuhaitz amatik 15 metrora arte .
- > Zuhaitz bakoitzak urtean **350.000 hazi bideragarri** sortzen ditu, eta erraz mugitzen dira haizearekin.
- > Instalatzen den tokian, lurzoruaren propietateak aldatzen ditu sustraietako eta hostoetako substantzia toxiko batzuetatik abiatuta, eta, beraz, **ez du uzten beste landaredi-mota bat gertu hazten.**
- > Oso sustrai indartsuak ditu, eta ia lurrik gabeko hiri-inguruneetan hazteko gai da.

Horrek ondorio negatiboak ditu ekosistemetan, baina kalte eta galera ekonomikoak ere dakartza:

- > Erabat kaltetzen du hazten den ingurune naturala, eta ez du uzten beste landaredi bat hazten, tokiko faunaren habitata aldatzen du eta lurzoruaren mikrofauna pobretzen du.
- > Sustraiak hodiak, espaloiak, zoladurak eta eraikuntzak kaltetzeko gai dira.
- > Sortzen dituen substantzia toxiko horiek inguruan dauden labore, larre eta ur-erreserbetan ere eragina izan dezakete.
- > Erleek loreak jaten badituzte, ezta mingotsa da eta kalitatea galtzen du.
- > Laboreetarako izarri bihur daitezkeen intsektu batzuekin harreman estua du.

Nola ezagutu **Ailantoa**?



Banaketa

Parke eta lorategi batzuetan landatuta ikus daiteke, baina ibaiertzak, errepide-arekak eta gero eta ingurune natural gehiago hartzea lortu du, hala nola basoak eta sastrakadiak.

Esan bezala, sustraietan zehar hedatzen denez, ale asko batera hazten dira lerro zuzenean.



Enborra eta adarrak

Azal grisaxka du, ale gazteetan leuna eta helduetan zimurragoa; oso porotsua da egurra. Adarrak kurbatu egiten dira eta gazteak direnean tonu gorrixkakoak dituzte.



Hostoa

90 cm arteko luzera eta bukaera punta zorrotza duten hostoak ditu, kolore berde argikoak eta usain desatseginekoak, mikatzak. Udazkenean erori egiten dira, eta udaberrian berriz ere ernetzen direnean, kolore gorrixka bereizgarria izaten dute.



Lorea

Txikiak dira, berdeak edo zurigorixkak, eta mahats-mordotan antolatuta daude. Usaina ere desatsegina du.



Fruitua


Hazia erdian jartzen da, eta inguruan egitura lau bat du, haizearekin mugitzeko aukera ematen diona. 5 cm neurtzen dute gutxi gorabehera, eta kolorea aldatu egiten da berde horixkatik hasi eta laranja-raino, denbora igaro ahala. Mahats-mordo zintzilikario handietan jartzen dira, eta zuhaitzean iraun dezakete udazkenean ateratzen direnetik hurrengo udaberrira arte.

Ailanto bat ikusi dut. Nola erregistratzen dut?

Herritarren zientzia funtsezkoa da espezie exotiko inbaditzaileen jarraipena eta kontrola egiteko.

Ailanto bat ikusi baduzu, edo ikusi duzula uste baduzu, zure behaketa parteka dezakezu, hiritar-zientiaren aplikazioen bidez, hala nola **iNaturalist**.


Oso erraz instalatzen da, bai **Android**-en bai **iOS**-en. Deskargatu ondoren, erregistratu besterik ez duzu egin behar.



Aplikazioa irekitzean, **Behaketak** pantaila bat agertzen da, aurkitutako espezieak erregistratzeko.

Goiko ezkerreko izkina (≡) **Proiektuak** atalean sakatzean, bilatu **Mapeo del ailanto (y otras EEI) en la comarca de Pamplona** eta hautatu **Bat egin** aukera.


Sarrera bat gehitzeko, **botoi berdea** hautatzen da, eta unean bertan hartutako irudiak edo galerian daudenak erants daitezke.



Ondoren, behaketa editatuko da eta iradokizun bat gehitu daiteke. **Zer ikusi duzu?** fitxan, adibidez "Pinu" edo, besterik gabe, "zuhaitz", erantsitako irudien miniaturen azpian landarea identifikatzen laguntzeko.

Ikusten dena ezagutzen ez bada, "Ezezaguna" ere adieraz daiteke.

Azkenik, azken fitxan, **proiektu** bati gehi diezaiokezu behaketa; kasu honetan, aurrez lotu dugun proiektua: **Mapeo del ailanto (y otras EEI) en la comarca de Pamplona.**



Erregistroa egiaztatu ondoren, behaketa jendaurrean jarriko da, eta identifikazioan lagunduko duten iruzkin eta argibideak emango dira.

▶ Ezin duzu
iNaturalist aplikazioa erabili?

Ailanto bat ikusi baduzu eta zure izenean erregistratzea nahi baduzu, deitu telefono honetara:

670 961 675

*(astelehenetik ostiralera,
18:00etatik 20:00etara)*

asociacion@reforestacion-nafarroa.org

—

reforestacion-nafarroa.org

